

ERASO MATXISTEN KONTRAKO PROTOKOLOA

EMAKUME BAT ERASOTUA IZAN DENEAN EDO ARRISKUAN DAGOELA USTE
DUZUNEAN EGIN BEHARREKOA

1

Lehentasuna duen kontua da, egiten ari zarena utzi eta emakumea lagundu. Leku lasai batera joan. Ez utzi emakumea bakarrik. Saiatu bere konfiantzako norbait bilatzen berarekin egon dadin. Ez baduzu inor aurkitzen, gelditu berarekin behar duen beste.

2

Galdetu ea laguntzarik behar duen. Erasotua izan bada, galdetu ea mediku arreta nahi duen edo gertaera salatu nahi duen.

3

Errespetatu beti erasotua izan den emakumearen erabakiak eta denborak. Zerbitzuren bati deitu edo beste urrats bat eman aurretik, hari galdetu.

4

Enpatia eta laguntza eskaini. Esaiozu ez dagoela justifika daitekeen erasorik eta bera ez dela gertatutakoaren erantzulea. Lasai egon zaitez berarekin.

5

Erasotzailea bertan badago, harekin hitz egin, argi utzi eremu horretan ez dela jarrera sexistarik onartzen eta taldean gunetik kanporatu.

LAGUNTZA MEDIKUA BEHAR BADU

- Larrialdetara deitu edo larrialdietako osasun zentro batera joan.
- Mediku arreta eta forensea, biak, eskatu.
- Sexu-eraso edo bortxaketa baten aurrean, emakumeak ez badaki ere gertatutakoa salatu nahi duen ala ez, azaldu iezaiozu frogak ezaba daitezkeela dutxatzen bada, jaten badu edo arropaz aldatzen bada.
- Indarkeria kasu larrietan larrialdi zerbitzuak behartuta daude partea Epaitegietara pasatzera.
- BETI eskatu lesio agiriaren kopia.

SALAKETA JARRI NAHI BADU

- Guardiako epaitegian, Ertzaintzan edo osasun zentroan egin daiteke.
- Salaketa jartzeak prozedura judiziala dakar, salaketa jarri aurretik eskatu aholkularitza juridikoa azpiko telefonoen bidez.
- Salaketa BETI abokatu baten laguntzaz egin.
- Ez duzu zertan salaketa momentuan jarri: kontaketa osoagoa egin dezakezu aurrerago, lasaiago eta shock egoeratik kanpo.
- Ertzaintzan, goizetan, Biolentzia unitate berezia egoten da, bertan gaiarekin “sentsibilizatutako” pertsona batek artatuko zaitu. Hitzordua hartu dezakezu salaketa jartzeko.

TELEFONOAK

- Tratu txarren biktima diren emakumeei laguntzeko telefonoa (24 orduz hainbat hizkuntzatan): **900 84 01 11**
- Gizarte larrialdietako koordinazio zerbitzua: **943 22 44 11** (22:00-7:00 SOS deien bidez)
- SOS deiak: **112**
- Oiartzungo Udaltzaingoa: **943 49 33 11**
- Oiartzungo Gizarte Zerbitzuak: **943 49 05 52**

**LAGUNTZA BEHAR BADUZU HURBILDU ASANBLADA
FEMINISTAREN TXOZNARA EDO KIDEREN BATENGANA**

